



**Altsasuko Udala**  
*Ayuntamiento de Alsasua*  
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61  
FAX 948 56 38 55  
www.altsasu.net  
altsasu@altsasu.net  
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

**ALTSASUKO MUGAPEKO MENDIKO PISTEN ETA BIDEEN ERABILERA ARAUTZEN  
DUEN ORDENANTZA  
(NAO 8 zbk, 2011ko urtarrilak 13)**

Altsasuko herribide publikoen sarea altsasuar guztien ondarearen zati da. Berebiziko garrantzia du udal mugapeko mendi eta landetako aberastasuna zaintzeko eta hartara sarbide izateko. Funtsezkoa da herritarren arteko komunikaziorako eta bisitarien nahiz pasadizokoen harat-honatak errazteko. Ongi zaindurik egoteak herritar guztiei egiten die on.

Altsasuko hermandian pista eta bide publikoak gero eta gehiago erabiltzen baitira, beharrezkoa da haien erabilera arautzea. Xedeak hiru dira: Altsasuko natur ondarea zaintzea, erabiltzaile guztiek eta bereziki herritarrek modu orekatuan erabiltzea eta erabiltzeko egoera onean mantentzea.

Helburua horixe dela, Altsasuko Udalak ordenantza hau onetsi du:

1. artikulua. Ordenantzaren xedea.

Ordenantza honen xedea da Altsasuko Udalaren pista eta bide publikoen erabilera arautzea indarra duen araudiarekin bat, baita tasa bat ezartzea ere haiek erabiltzeagatik.

2. artikulua. Herribideen kategoriak.

Erabilera nagusia zein duten, Altsasuko mendiko bide publikoak kategoria hauetan sailkatzen dira:

1. 2 metro zabal edo gehiago duten bideak.

a) Auzoetako bideak, gehienbat herritar talde batek batera erabiltzen ditu, beren etxeetara edo beren nekazaritzako, abeltzaintzako eta/edo basogintzako ustiapenetara joateko.

b) Baserrietako bideak, gehienetan aitzineko horien adar izaten direnak, herritar batek edo gutxi batzuek baserrietan eta haien inguruko ustiategietan sartzeko erabiltzen dituztenak.

c) Pista nagusiak, normalean hermandiaren gainean mugarren lerrotik kanpora egoten direnak, eta erabiltzen direnak mendi alde handietara ailegatzeko nahiz inguruko herriekin komunikatzeko. Gauza bat baino gehiagotarako erabiltzen dira: oihangintza, abeltzaintza, turismoa, ehiza...

d) Bigarren mailako pistak, hermandian izaten dira eta sare nagusiaren osagarri dira, eta mendi, baso berri, belai eta bertze zenbait tokitara ailegatzeko aukera ematen dute.



## Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

e) Egurra ateratzeko bideak eta bide-adarrak: sareko egitura meheena osatzen dute; gehienetan helburu bakarra dute, gehienetan zura ateratzea edo norbanakoen lurzatietan sartzea. Anitzetan noizean behin baizik ez dira erabiltzen, eta denbora luzez ez dira ibilgailuak sartzekoak.

2. 2 metro zabal baino guttiagoko bide meharrak.

a) Bideak, orgabide zaharrak eta bidexkak, erabilera eta eginkizun bat baino gehiago dutenak, lasterbideak eta turismorako bidexkak barne.

3. artikulua. Kontserbazioa.

Altsasuko Udalak zainduko du 2.1.a), b), c) eta d) ataletan zehazten diren mendiko bide publikoak beti egon daitezen erabiltzeko maneran. Horretaz gain, behar diren neurriak hartuko ditu gal ez daitezen interesgarritzat jotzen diren bertzelako bideak (bertzeen adar direnak, bidexkak).

4. artikulua. Ibilgailu motordunetan ibiltzeko debeku orokorra.

Debeku da pistetatik kanpora mendian barna ibilgailu motordunetan ibiltzea, baita bi metro zabal baino estuago diren pistetan barna ere, non ez diren nekazaritzarekin, abeltzaintzarekin, basogintzarekin edo behar bezala baimendutako bestelako jarduerekin zerikusia duten ibilgailuak. Debeku da, baita ere, ibilgailua aparkatzea pistetatik eta behar bezala seinalatutako tokietatik kanpora.

5. artikulua. Pistak erabiltzeko araubide orokorra.

2.1.c) artikuluan zehaztutako pistak nolakoak diren, hartarakoxe erabiliko dira, eta debeku dira haien erabilera ezohiko eta gehiegizko guztiak, bideetan kalte egiten dutenak edo trafikoaren segurtasunaren kontrakoak.

a) Debeku da arras delako bide eta pista horietan barna oihangintzako eta eraikuntzako produktuak herrestan eramatea, baita kate bidezko ibilgailuen joan-etorria ere, non eta ez diren pistak berak garbitu eta hobetzeko erabiltzen direnak edo Udalak eta partikularrek beren finketan obrak edo hobekuntzak egiteko erabiltzen dituztenak.

b) Bide, pista nahiz areketan debeku da lurra, harriak, hondakin mota guztiak eta nekaritzako edo oihangintzako produktuen hondarrak bota edo uztea.

c) Bide, pista eta haien inguruko aparkalekuetan debeku da nekazaritzako, oihangintzako edo bertzelako produktuen hondarrak erretzea.

d) Espresuki debeku dira lehiaketak eta lasterketak, Administrazioak baimendu ez baditu, baita paseoan dabiltzanentzat, txirrindularientzat, etxeko animalientzat eta basa faunarentzat arriskugarriak izan daitezkeen gidatzeko modu bortitz guztiak. Salbuespen gisa, Altsasuko



## Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua  
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altsasu.net

altsasu@altsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Udalak baimena ematen ahalko du ibilgailu motordunen lehiaketa ofizialak eta taldean antolatzen diren jarduera turistikoak egiteko.

e) Errespetatu beharko dira 2.1.c) artikuluan zehaztutako pistetarako pisuaz eta kargaz den bezainbatean adierazten diren mugak; inoiz ezin izanen dira 35 tona baino gehiago izan.

6. artikulua. Auzoetako bideetan eta baserrietako bideetan ibiltzeko baimen orokorra.

Sailkapeneko lehenbiziko bi pistetan (auzoetako pistak eta baserrietako bideak), baimentzen da motozikletak eta 3,5 tonatik beheitiko pisua duten ibilgailu motordunak ibiltzea.

Hala ere, 3,5 tonatik goitiko pisua duten ibilgailuak ere ibiltzen ahalko dira, Udalak baimena ematen badu, behar bezala seinalatutako lekuetan (zubiak eta abar) izan ezik.

7. artikulua. Baimena, motozikleta eta 3,5 tonatik beheitiko pisua duten ibilgailu motordunendako, pista jakin batzuetan barna ibiltzeko.

Motozikleta eta 3,5 tonatik beheitiko pisua duten ibilgailu motordunak baimena izanen dute ondoko pistetan barna ibiltzeko:

-Altsasuko mugapeko lurzatietako pistak.

-Murgilgo pista, ikastolatik Ulaiarko lotunera doana.

-Martinsastitik Kanpo Iturrira doan pista, A1 errepidearen ondotik.

-Basomuturtik San Pedrora doan pista.

Udalak berak aldatzen ahalko du zerrenda hori, kontuan hartuz une bakoitzeko goiti-beheitiak, pisten egoera edo berak ikusten duen beste arrazoiren bat.

8. artikulua. Debekua, pistetan ibiltzeko.

Altsasuko gainerako pistetan debeku da ibilgailu motordunak baimenik gabe ibiltzea, non ez diren nekazaritzarekin, abeltzaintzarekin, oihangintzarekin edo behar bezala baimendutako bertzelako jarduerekin (hala nola bordetara joateko eta abar) zerikusia duten ibilgailuak.

9. artikulua. Baimentzeko prozedura.

a) Baimen eskabideak ofizialki ezarritako erduan aurkeztuko dira; haietan datu pertsonalak, ibilgailuen gainekoak eta eskatzen den baimen motari dagozkionak emanen dira.

b) Baimena eskatzen ahalko dute Altsasuko herritarrek, bai eta bertze pertsonak ere, baldin eta beren ibilgailuekin ibiltzeko beharra arrazoitzen badute, betiere ordenantza honetan ezarritakoari jarraikiz.



## Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua  
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altsasu.net

altsasu@altsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

c) Organo eskudunak gehienez ere hiru hilabeteko epea izanen du baimenen eskubidearen gaineko ebazpena emateko, eta indarra izanen dute egutegiko hiruhileko bakoitzeko lehen egunaz geroztik ebazpenaren egunetik hasita.

d) Baimena ibilgailu edo jarduera ekonomiko bakoitzeko, zer den bidezkoa, banakako txartel bat emanaz gauzatuko da, 17. artikuluan aurreikusten diren kasu eta moten arabera. Ibilgailu baimenduen erregistroa sortuko da, eta hari dagozkion zergadunen errolda ere bai. Errolda horretako hasierako sarrera ofizioz eginen da, baimena eman ondoan.

e) Utziz gero, edo aldaketaren bat eginez gero, horrelakoak gertatzen diren egutegiko hiruhileko berean egin beharko dute horien gaineko deklarazioa aitzineko idatz-zatian aipatutako erroldako subjektu pasiboek, eta horiek indarra hartuko dute artikuluko honen c) idatz-zatian ezarritakoari jarraikiz, salbu eta tributu-kuotaren sorrarazpenari, likidazioari eta dirusarrerari dagozkienak, horretarako ordenantza honen 19. artikuluan xedatzen denari jarraituko baitzaio.

10. artikulua. Baimena emateko eskumena.

Altsasuko alkateak emanen du Altsasuko pistetan barna ibiltzeko baimena, aurreko artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Baimenek urte bakoitzeko abenduaren 31 arte izanen dute balioa eta hurrengo urtea arte luzatutzat joko dira baldin eta uzteko edo ofizioz utzarazteko deklaraziorik egin ez bada.

11. artikulua. Zerbitzu publikoak.

Ordenantza honen debekuetatik salbuesten dira erakunde eta ente publikoen ibilgailuen joan-etorria, beren egitekoan ari direnean, hala nola polizia, suhiltzaile, mendizain eta abarrena.

Kasu berezietan, aitzineko lerroaldean agertzen ez diren egoerak hartzen ahalko dira kontuan, hala nola: herri lanak, administrazio publikoek edo haien entitate instrumentalek sustatzen dituzten jarduera interes publikokoak, larrialdiak, istripuak edo hondamendiak, etab.

12. artikulua. Ibiltzeko gehieneko abiadura.

Altsasuko pista guztietan gehieneko abiadura 15 kilometro/ordua izanen da.

13. artikulua. Pisten egoerari eta inguruabarrei dagokien abiadura.

Istripu arriskuak gutxitzeko, eta oinezko, txirrindulari eta animaliei trabarik ez egiteko, gidariak abiadura egokitu beharko dute, maldetan eta toki arriskutsuetan behar adina motelduz, baita aziendak hurbil dabiltzanean eta oinezkoak agertzean ere, edo denbora idorra denean, pistetan hautsa pilatzen baita.

14. artikulua. Erabiltzaileen erantzukizuna.



**Altsasuko Udala**  
*Ayuntamiento de Alsasua*  
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61  
FAX 948 56 38 55  
www.altsasu.net  
altsasu@altsasu.net  
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Erabiltzaileek beren gain izanen dute ordenantza honetan aipatzen diren arauak ez begiratzeagatik pistetan egiten dituzten kalteen erantzukizuna.

15. artikulua. Pisten inbentarioa.

Altsasuko Udalak 2. artikuluko pista guztien eta haien kategorien inbentarioa eguneratuko du etengabe. Inbentario horrek balio izan dezake pista bakoitzerako tona kopuru eta gehieneko abiadurak zehazteko, ezarritako mugapenez gainera.

16. artikulua. Arau-haustekak.

Ordenantza honetan ezarria urratzea arau-haustetzat joko da.

17. artikulua. Zehapenak.

Arau-haustek isuna izanen dute zehapen; hura 300,00 euro izanen da gehienez ere, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 52. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Zehapenak ezartzea eragindako kalte-galeren ordainetik aparte izanen da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 117. artikuluan ezarriari jarraituz.

Isunen dirua eta kalte-ordainak biltzeko, premiamendu bideari ekinen zaio, borondatez ordaintzen ez bada.

18. artikulua. Zehapen prozedura.

Arau-haustea ekar dezaketen egitateen berri emanen zaio alkateari; horrek behar den zehapen espedientea abiaraziko du, Herri Administrazioen Araubideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeari eta Zehapen ahalmenaren erabilera arautzen duen Erregelamendua onesten duen abuztuaren 4ko 1398/93 Errege Dekretuari jarraikiz. Altsasuko alkatea da prozedura ebatzi eta zehapenak ezartzeko organo eskuduna.

19. artikulua. Tasaren zergapeko egintza.

Honako hau da tasaren zergapeko egintza:

a) Altsasuko Udalaren pista eta bide publikoen erabilera eta haien gaineko mantentze, zaintze eta hobetze lanen zerbitzu publikoa egitea.

b) 19. artikuluan aipatzen diren subjektu pasiboek pistak maizago eta modu berezian erabiltzea.

21. artikulua. Salbuespenak.

11. artikuluan aipatzen diren ibilgailuak tasa ordaintzetik salbuetsirik daude.



## 22. artikulua. Subjektu pasiboak.

Subjektu pasiboak dira, zergadun diren aldetik, pertsona fisiko eta juridikoak, eta orobat nortasun juridikorik gabeko entitateak, unitate ekonomiko bat edo ondare berezi bat osatzen dutenak, baldin eta:

1. Ordenantza honen 9. artikuluan aurreikusitako baimena eskatzen duten ibilgailuen titularrak badira eta erabilera hauek egiten badituzte:

a) Oihangintzako produktuak bide eta pista horietatik ateratzeko egiten diren joan-etorriak, baldin eta ibilgailu motordunen bidez ateratzen badira.

b) Epaitzen aprobetxamendua.

c) Eraikuntzako materialak, ondasunak eta ekipoak pista eta bide horietan barna garraiatzea, baldin eta ibilgailu motordunen bidez egiten bada.

d) Makina handiak bide eta pista horietan barna garraiatzea eta/edo ibiltzea: bertzeak bertze, kamioiak, furgoiak edo furgonetak, kamioi traktoreak, atoiak, atoi erdiak, ibilgailu artikulatuak, errepideko trena, ibilgailu egokituak, ibilgailu misto egokitzen ahal direnak, ibilgailu bereziak, obretarako traktoreak, obretarako berez dabiltzan makinak nahiz atoian eramanez, zerbitzuetarako traktorea, gurdi traktorea, zerbitzuetarako makina berez ibiltzen dena nahiz atoian eramana, dumperra, garabiak, hormigoi makina, hondeamakinak, atzera-hondeamakinak, pala kargatzaileak, nibelatzeko makina, trinkotzaileak, ibilgailu biltontzidunak, lohi-ateragailuak, estazio eraldatzaile mugigarriak eta abar.

e) Ibilgailuen joan-etorria, jostetarako, turismorako edo ehiza aprobetxamenduetarako.

f) Ibilgailuen ibilia, nekazaritzan, abeltzaintzan, oihangintzan edo oro har jarduera ekonomiko batean aritzeko.

2. Altsasun kokatuak izan ala ez, jarduera ekonomikoen titularrak, horietan aritzeko beharrezkoa baldin bada udalerriko pista eta bide publikoetan maiz ibiltzea titularrarenak ez diren ibilgailuetan. Halakoetan jardueraren titular bakoitzeko txartel bat eta bakarra emanen da, ustiapenean erabiltzen diren garraio eta hornidura guztietarako, baldin eta titularraren beraren ibilgailuetan egiten ez badira eta horiek artikulua honen 1. idatz-zatiko letraren batean sarturik ez badaude.

## 22. artikulua. Tributu-kuota.

Altsasuko pista eta bide publikoak mantentze, zaintze eta hobetze lanen zerbitzua egiteagatik eskatu beharreko tributu-kuota tarifan eranskinean xedatzen denari jarraikiz zehaztuko da.

## 23. artikulua. Sortzapena, likidazioa eta dirubilketa.



**Altsasuko Udala**  
*Ayuntamiento de Alsasua*  
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61  
FAX 948 56 38 55  
www.altsasu.net  
altsasu@altsasu.net  
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

a) Tasa honengatik eskatzen diren kuotak sorrarazi, likidatu eta bilduko dira baimena ematen den unean eta hemendik aitzina ekitaldi bakoitzeko urtarrilaren 1ean sorraraziko dira eta urteko lehen hiruhilekoan likidatu eta bilduko dira, horretarako ordainagiri helbideratua erabiliz.

b) Kuotak ez dira hainbanatuko urte bat baino guttiagoko aldietan, kontuan hartu gabe sarrera, uztea edo aldaketa noiz gertatzen diren.

#### XEDAPEN IRAGANKORRA

2010ean baimena jaso duten ibilgailuak automatikoki sartuko dira ibilgailu baimendunen erregistroan eta hari dagokion zergadunen erroldan, urte hau amaitu baino lehen ez badute baja aurkezten Udalean.

Erregistroan agertzen diren ibilgailuek kasuan kasuko tasa ordaindu beharko dute, ordenantza honetako 23. artikuluan ezarri epean eta moduan.

#### AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honetan jasota ez dagoen orotan aplikatzekoak izanen dira Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea eta indarra duen legeria sektoriala.

Ordenantza honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

#### TARIFEN ERANSKINA

1. epigrafea.-Ibilgailuen joan-etorria, jostetarako, turismorako edo ehiza aprobetxamenduetarako.

1.1. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko udal erregistroan inskribaturiko ibilgailuak, Altsasun erroldaturiko titular batenak direnak: 10,00 euro/urtea.

1.2. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko udal erregistroan inskribaturiko ibilgailuak, Altsasun erroldaturik ez dagoen titular batenak direnak: 20,00 euro/urtea.

1.3. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko udal erregistroan inskribatu gabeko ibilgailuak, Altsasun erroldaturiko titular batenak direnak: 20,00 euro/urtea.

1.4. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko udal erregistroan inskribatu gabeko ibilgailuak, Altsasun erroldaturik ez dagoen titular batenak direnak: 50,00 euro/urtea.

2. epigrafea.-Ibilgailuen joan-etorria, nekazaritzan, abeltzaintzan, oihangintzan edo oro har jarduera ekonomiko batean aritzeko, modu iraunkorrean, traktoreak barne.



## Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

2.1. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko udal erregistroan inskribaturiko ibilgailuak, Altsasun erroldaturiko titular batenak direnak, haren jarduera ekonomikoa ere Altsasun kokatuta badago (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Erregistroa): 10,00 euro/urtea.

2.2. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko udal erregistroan inskribatu gabeko ibilgailuak: 20,00 euro/urtea.

3. epigrafea.-Ibilgailu astunak.

3.1. Oihangintzako ustiapenetatik heldu den egurra garraiatzeko ibilgailu astunak, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko udal erregistroan inskribaturik egon ala ez: 30,00 euro/urtea.

3.2. Eraikuntzako material, makineria astun, ondasun eta ekipoak daramatzaten ibilgailuen joan-etorria, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko udal erregistroan inskribaturik egon ala ez: 30,00 euro/urtea.

3.3. Abeltzaintzako ustietagietara edo bertzelako jarduera ekonomiko batera produktuak garraiatzeko ibilgailu astunen joan-etorria, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko udal erregistroan inskribaturik egon ala ez: 30,00 euro/urtea.

4. epigrafea.-Ibilgailu astunak, ustiapen edo jarduera ekonomikoei lotetsiak.

4.1. Ustiapenaren edo jardueraren titularraren arabera nekazaritza, abeltzaintza, oihangintza eta eraikuntzako ustiapen eta jardueren horniduran eta oro har haietarako garraioan erabiltzen diren ibilgailuak: 30,00 euro/urtea.